



Antzerkigile britaniarra egun eta bihar izango da Gayarren.

Lindsay Kemp 'Onnagata' bere azken lanarekin gaur Iruñean

A.B. / IRUÑEA

Lindsay Kemp antzezleri ingelesak 'Onnagata' bere azken lana aurkeztuko du gaur Iruñeko Gaiarre Antzokian, 'Antzerkiaren zortzi aurpegi' izeneko zikloaren barruan. Japoniako Kabuki antzerkiaren muntaiaren oinarrituta, Kempen lanik pertsonalena da honako hau, eta bera izan da ikuskizuna, eskenografia eta janzkeraren arduraduna. Musika Joji Hiratarena da, Simon Wallacek lagun-

tzarekin. Lindsay Kemp, antzerki munduan azken urteotako artistarik garrantzitsuenetakoa, Ingalaterrako iparraldean jaio zen, itsasgizonen familia batean. Londresen konpaini txikietan lanetan aritu ondoren, bere talde propioa osatu zuen, eta hortik atera ziren 'Flowers', 'Udako gau baten ametsa' eta 'Alicia' bezalako lan ikusgarriak.

Emankizun hauek gaur eta bihar ikusgai izango dira, arratsaldeko zortzietan.

XIX. Musikaste Erreterian

Uruñuela eta Zubeldia protagonista izango dira ganbara musikako egunean

MALU GARMENDIA / ERRETERIA

Musikasteko XIX edizioaren barneko ekitaldiei jarraituz, gaur ere Emiliana Zubeldia musikari nafarra omenduko dute Erreterian. Ganbara musikari eskainitako gaurko egitaraua bi zatitan banatuko da. Alde batetik, Emiliana Zubeldiaren konposizioez osatutakoa; bestetik, Jose Uruñuela musikari gazteiztarraren izana gogoratuko da bere musikaren bitartez.

Ekitaldiak arratsaldeko 8tan izango dira Erreteriko Kaputxi-noen elizan. Bertan, besteak beste, Mexikoko Hermosillo herriko Emiliana de Zubeldia abesbatzak ihar-dungo du. Koral haxe Jaitz (Zubeldiaren jaioterria) eta Lizarran arituko da maiatzaren 15ean, goiz eta arratsalde. Saio hauek Musikaste eta Nafar Gobernuaren arteko elkarlaren fruitu lirakeke.

Atzoko zabalpen saioen artean, 'Emiliana Zubeldia Amerikan' eta 'Emiliana Zubeldia Europan' izenburuko hitzaldiak egin ziren eta euskal musikari buruzko bi lan editorial aurkeztu: Eusko Ikaskuntzako 'Sail Argitalpenen Musika 5. alea' eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarrekin argiraturiko Jon Baguesen 'La música en la RSBP'. Biharko ekitaldiak 'Aintzinako musika' izenburupean plazaratuko dira eta Ledesma, Manuel de Gamarra eta Fermín de Arizmendi omenduko.

Atzoko zabalpen saioen artean, 'Emiliana Zubeldia Amerikan' eta 'Emiliana Zubeldia Europan' izenburuko hitzaldiak egin ziren eta euskal musikari buruzko bi lan editorial aurkeztu: Eusko Ikaskuntzako 'Sail Argitalpenen Musika 5. alea' eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarrekin argiraturiko Jon Baguesen 'La música en la RSBP'. Biharko ekitaldiak 'Aintzinako musika' izenburupean plazaratuko dira eta Ledesma, Manuel de Gamarra eta Fermín de Arizmendi omenduko.

Oteiza: «Txillidak bi estilo ditu: bata berea, bestea nerea»


'Plagioen liburua' oriotarraren azken lana aurkeztu zen Iruñean atzo

Jorge Oteizaren azken liburua aurkeztu zen atzo Iruñean. 'Libro de los plagios' ('Plagioen liburua') izeneko. Bertan, Txillidarekin polemika piztu zuten argudioak berriro baieztatzen ditu artista oriotarrak.

A.BARANDIARAN / IRUÑEA

Liburuak aipatu argudioak berriro kaleratzen baditu ere, «Liburu honekin osatu eta itxi egiten dut Gernikako ezbeharrak, kultur politika eta eskulturari buruzko euskal gai eztabaidagarriak». Liburuaren aurkezpenan Txema Aranatz Pamielaren arduradunak azaldu zuenez, Oteizaren «gogoz bestekoa» da lan hau, «kritika artistikoa edota albiste erakargarri baino, zerbait gehiago bilatzen dituzten kazetarien egin beharra bait zen». Polemika iaz sortu zen, Eduardo Txillidaren zenbait adierazpenekin, honek ukatu bait zuen orduan bere lanak 'Euskal Eskola' eta Oteizari ezer zor zienik. Jorge Oteizak, orduan, «gezurti» deitu zion eskultore donostiarrari, eta oraingoan, azken honen lanetan «bi estilo» nabarmentzen direla azaldu du, «bata berea, bestea nerea».

Oriotarrak, atzoko prentsaurrekoan azaldu ez zena, sobera osasuntsu ez zebilela eta, Txillidaren lanaren bilakaera aztertzen du liburuan. Bere ustez, eta berak asmatutako 'Aldaketen legerari' jarraituz, donostiarrak lege honen lehendabizikoa



Polemika sortuko du «polemikarekin amaitzeko egindako liburuak».

faseari ekin zion 1955an, «nik bigarren fasea amaitzeko nuelarik. Horregatik, eta artean derrigorrezkoak diren aldaketekin, oso logikoa da nere lanarekin topatzea eta probetxatzea». Oteizarentzat, ordea, «ez da bidezkoa lotura hau ukatzea, ez disimulatzea, ez Euskal Eskola ukatzea, zeren bera, hau gabe, hutsa bait litzateke».

BESTE BI LIBURU PRESTATZEN Kritika ugari ere jasotzen du bertan Kosme Barañano

Reina Sofia Kultur Zentruaren zuzendariorde ohiak, eta bereziki, berak egindako Txillidari buruzko liburuak. Bertan, Oteizaren lanetan «zenbait akats» nabarmentzen zituen kritikoak, aurrekoekiko erreferentzi

ugari aipatzen zuen bitartean. Oteizak salaketa bat paratu zuen Barañanoren kontra, honek botatako bere lanari buruzko iritziak zirela eta, eta handik gutxira, Reina Sofian zuen lanpostutik kendu zuen Kultur Ministeritzak.

Jorge Oteiza Altzutzan bizi da gaur egun, eta bi liburu ari da prestatzen, 'Euskaldunen bidaia urrezko ardiraren bila' eta 'Cezanneren pastorala'. Lehendabizikoa euskarantz mantentzen diren indoeuropar aurreko aztarnak aztertu nahi ditu artistak, euskal kultura edo euskara beraren interpretazioa osatu ahal izateko. Bigarren, pintore frantziarrari buruzko pastorala prestatu nahi du, lan honi buruzko berri gehiagorik ez badago ere.

Antzerki Gaztearen Erakusketa Irunen maiatzaren 17an hasi eta 25era arte

IRUN

Irungo Udaletxeak maiatzaren 17tik 25era bitartean antolatu duen Antzerki Gaztearen VII Erakusketak «kultur arlo honetan hasten ari diren taldeen asmoak eta ideiak bideratzea» du helburu nagusitzat, Irungo Udaletxeko kultur delegatu den Federico Abaigasek, atzo goizean egindako aurkezpenan adierazi zuenez.

Horretaz gain, antzerkiarekiko zaletasuna piztu nahiko lukete antolatzaileek, Bidasoa Behereko eta Hendaiaiko gazteen artean batez ere. Parte hartuko duten taldeen aukeraketan, aktoreen adina izan da erabiltako erizpideetako bat, 25 urte baino gutxiago izango bait dituzte antzezle guztiek. Bete beharreko beste eskakizuna amateurra izatea izan da. Nolanahi ere, erdi-profesional diren

taldeentzat sail berezi bat antolatu da. Emanaldiez gain, antzerkiari buruzko erakusketa bat ere ikusi ahal izango da, Amaia Auditoriumeko erakusketa gelan. Gainera, azken egunean, maiatzaren 25ean, mahainguru bat egingo da, bi gairen inguruko eztabaidari ekiteko: antzerki gaztearen arazo bereziak, eta mugaz bi aldeetako antzezaldearen arteko elkarlaguntza.

Arrasate Aretoa

Arrasate, 12
Donostia - San Sebastián

1991ko Maiatza 14etik 31ra

Ikustordua: Arratsaldeko 18,00etatik 21,00etara
Jaiegutetan: Goizeko 11,30etatik 13,30etara

Pintura Erakusketa

José Luis Delgado



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián